



ESKOLA KIROLAREN LURRALDE KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA

2011ko azaroaren 22ko 18:30ean, Kirol Etxeko Juan Muguerza aretoan, Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluaren ohiko bilera izan da. Deialdiaren gai-zerrenda osatzen duten gaiak jorratu dituzte bertan.

Bertaratuak honakoak izan dira:

* Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik

- Asier Sarriegi, Kirol zuzendari nagusia, bileran buru izan dena.
- Carlos Alfonso, Kiroleko zerbitzuburua.
- Imanol Fernández de Larrinoa, kirol teknikaria.
- Ramón Martiarena, Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluaren idazkaria.
- Jon Ander García de Cortázar, Kirol Management S.L. enpresa, Gipuzkoako Kirol Kontseiluaren idazkaritza.

* Gipuzkoako udalen aldetik

- Edorta Badiola, Zarauzko Udalekoa.
- Ramón Mujika, Elgoibarko Udalekoa.
- Arkaitz Angiozar, Lezoko Udalekoa.
- Beatriz Mena, Villabonako Udalekoa.
- Manolo Aierbe, Hernaniko Udalekoa.

* Kirol federazioen aldetik

- Tetxus Barandiaran, Mendi Federaziokoa.
- Pedro Echarri, Saskibaloï Federaziokoa.
- Teresa Ortega, Judo Federaziokoa.

* Ikastetxeen aldetik

- Aitor Pérez, Errenteriako Orereta Ikastolakoa.
- Susana Santor, Arrasateko Herri Eskolakoa.
- Fernando Urien, Zarauzko Lizardi Institutukoa.
- Pako Urrestarazu, Ataungo Joxe Miel Barandiaran-ekoa.
- Iban Maritxalar, Usurbilgo Udarregi Ikastolakoa.

Ez etortzeagatik desenkusatu dira Alicia Figueroa, Kirol Egokituaren Federaziokoa, eta Jose Angel Rial, Karate Federaziokoa.

Banatutako dokumentazioa

- . 2011ko ekainaren 7ko bileraren akta
- . 2012-2013ko jarduera programaren zirriborroa
- . Eskola Kiroleko datuen txostena, 2010-2011 ikasturtea



- . *2011-2012ko eskola kiroleko izenemateen txostena*
- . *Baimendutako kirol eskolei buruzko txostena*
- . *Parte hartzeko lehiaketetan eta kirol eskoletan partaideen arteko kontrastea*

Saioa hasi baino lehen aurkezpena egin du Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kiroleko zuzendari nagusi berri Asier Sarriegi Zumarraga jaunak.

1) 2011ko ekainaren 7ko bilkurako akta onartzea

Onartu egin da.

2) 2011/2012 ikasturteko eskola kiroleko jarduerak abian jartzeko uneko gorabeherak

Foru Aldundiak aipatu egin ditu 2010-2011 ikasturteari buruzko eskola kiroleko datuei eta 2011-2012ko ikasturte honi dagozkion kirol kolektibo nagusietako partaidetza datuei buruzko txostenak, bileraren aurretik bidaliak; horietan ikusiaren arabera, lurraldean mantentzen ari dira, oro har, partaidetza portzentajeak.

3) Kirol teknifikazio / kirol eskola unitateen erregulazioaren eta luzapenen egoera

Foru Aldundiak aipatu egin du kirol eskolak baimentzeko prozesuaren eta baimen horien luzapenen egungo egoerari buruzko txostenaren edukia. Berrikuntza nagusia Donostiako futbol eskolei baimena eten zaiela da; izan ere, eskola kirolaren toki batzarrak atzera egin du hasieran emandako adostasunean, baimenaren baldintzen inguruan detektatu diren ez-betetzeetan oinarrituta. Zehazki, aurre-benjamin mailan eskolaumeek parte hartzea, entrenamendu saioak astean egun bat baino gehiagotan izatea, eta lehiaketako jardueretan parte hartzea horretarako baimenik gabe.

Era berean, partaidetza kontrasteari buruzko datuak aipatu dituzte, kirol eskoletako datuak eta Gipuzkoako eskola kiroleko programako partaidetza lehiaketetakoak harturik aintzat.

Azkenik, futbol eskolen arteko txapelketen ezaugarriak azaldu dituzte.

Bileran direnetako batzuek jakinarazi eta azaldu egin dituzte futbol eskolen arteko lehiaketa jarduera horietako batzuen data eta ordutegiakin lotutako hainbat gorabehera; izan ere, kasu batzuetan horiek ezin dira bateratu eskola kiroleko programako jardueretan parte hartzearekin. Era berean, kimu mailako 2. urteko eskolen arteko lehiaketan Oiartzunen parte hartzearekin sortu diren arazoak aztertu dituzte, argituz bide batez kirol modalitate desberdinetako eskolen funtzionamenduarekin lotutako hainbat alderdi.



4) *Eskola kiroleko monitore ikastaroa*

Aldundiak aipatu du ezen, hauteskunderen ondorioz hiru foru aldundietan izan diren aldaketa politikoen eraginez, eta horri gehituta 2012ko aurrekontuen onarpenaren gaineko zalantzak, 2011ko abenduko lehen hamabostaldira arte atzeratu dela monitore ikastaroaren hasiera. Bigarren txanda bat ere aurreikusita dago, zehazki 2012ko otsail eta maiatz artean gauzatzeko.

5) *EA Eren esparruko gaiet buruzko informazioa: Eskolako Kirolaren Euskal Batzordea*

Aldundiak aipatu egin ditu Eskolako Kirolaren Euskal Batzordeak 2011ko irailaren 22an egindako bileran jorratutako gaiak: batzordearen txostenak, diziplina erregimenari buruzko araudia, Kirol Kontseilu Gorenarekiko (CSD) harremanak eskola kirolaren arloan, Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoak eta errendimenduan hasteko Euskadiko Txapelketak.

6) *Bestelakoak*

Mendiko jardueretako tramite administratiboak izen-emateetarako aplikazioaren bidez kudeatzearekin lotutako kontuak aipatu dituzte, modalitate jakin batzuetako hastapen jardueretan ez-betetze batzuk izan baitira, eta hipikako hastapen jardueretako prezioak aldatu baitira.

Era berean, partaidetzako lehiaketetako bidaietarako laguntzei buruzko aurrekontu aurreikuspenak aipatu dituzte, mugikortasun iraunkorreko planak abian jartzeak horietan izan dezakeen eraginarekin batera. Bestetik, eskola kiroleko egituretarako diru laguntzen arloan dauden aurrekontu aurreikuspenak zein diren adierazi dute.

Eta, aztertzeko beste gairik ez dagoenez, hasieran adierazitako eguneko 20:30ean amaitu da bilera.

Presidentea

Idazkaria